

# «Cat domeinua lortu bazen, .eus ere lortuko da»

PuntuEus elkarteak aurkeztearekin batera, .eus domeinuarekin amesten hasi gara guztiok. Domeinuen esleipenari buruz pixka bat gehiago ulertzeko Puntcat-eko -.cat domeinua eskuratzeko lan egin duen elkarteak- zuzendari ohiarekin hitz egin dugu.

ELISABETH POMBO

Amadeu Abril da gaur egun domeinuak esleitzeaz ardura-zen den ICANN erakundea hobekien ezagutzen duen per-sonetarikoa bat, ia lau urtez ber-tako Administrazio Kontseiluko kidea izan baita. Eus ekimena ere gertutik ezagutzen du, laguntzaile ari baita. Une hone-tan gehien kezkatzen duena AEBetako Gobernuak domei-nuen onarpen prozesuan izan dezakeen esku-hartzea da, horrek epeetan atzeratzea eragingo bailuke eta “hori kaltegarria da, bai ekonomikoki eta baita ziurgabetasuna sortzen duelako ere”.



**Puntcat elkarteko zuzendaria ICANN erakun-dearen barnean egoteak izan al zuen eraginik .cat domeinua eskuratzeko orduan?**

ICANN sortu baino lehen ere hainbat lan eta bileratan parte hartu nuen. Beraz, ICANN erakundeak nola funtzionatzen duen, galderak nori zuzendu behar zaiz-kion, gauza bakoitzak zer epe dituen edo TLD [Goi mailako domeinu izena] bat lor-tzeko eskaera nola egin ezagutzen nuen. Hala, jakintza horiek eskuratzeko ez genuen profesionaleri ordaindu beharrik izan. Baina ni ICANNen egoteak ez zion .cat hautagai-tzari ez kalterik eragin ezta mesederik egin ere. TLD bat ez da onartzen edo ukatzen

adiskidetasun edo ezinikusi kontuengatik.

Nik banekien gure hautagai-tza berria eta espero gabea zela eta irakurketa “politikoak” zituela. Horregatik oso ongi egina egon behar zuen. Edozein akats txiki kaltegarria izango litzateke, ICANNi ez baitzion grazia izpirik egin .cat-en eskae-rak.

**Cat domeinua lortzeko egin zen bidea beste ekimen batzuentzako eredu bihurtu da. Eredu katalana “kopiagarria” al da domeinu horiek lortzeko?**

Cat domeinuak bidea ireki zuen dudarik gabe. Batetik, horrelako ereduak lortzea posible zela erakutsi zuen eta bestetik, bide-ragarria izateaz gain, “gatazkarik sortzen ez duten” domeinuen adibide bilakatu da.

Cat domeinua .eus bezalako ekimenen edo .berlin bezalako hiri domeinuen eredu bilakatu da. Ordura arte domeinuak lurral-detasunari loturiko irizpide politikoetan (.fr, .es, .uk...) edo jarduera ekonomikoarekin zerikusia zutenetan (.com, .org, .museum, .trave...) oinarritzen ziren. Cat-ek beste iriz-pide batzuk zehaztu zituen: “Hiztegia” (hizkuntza eta kulturari loturiko komunita-tea) eta ez “pasaportea” edo “diru-zorroa”.

Zailena ICANNi .cat-ek egon behar zuela ulertaraztea izan zen. Cat domeinua

**“Interneteko euskal eremu honetan euskaldunek Txapeldunen Ligan jokatzeko dutela erakutsi behar da, ez 2. B mailan”**

**“Obamaren administrazio berriak duen iritzia ikusi behar da, prozesua geldiarazteko eskatu dutenak Bushen administrazioarekin baitira”**



Urtarrilaren 29an egindako .eus domeinuaren aurkezpen prentsaurrekoa eta Durangoko Platerueneako ospakizuna.

lortu bazen, .eus ere lortuko da. Uste dut .eus oso ongi bideratua dagoela, zentzu guztietan.

### Zer izan behar da kontuan prozesua arrakastatsua izan dadin?

Arrakasta lortzeko bi maila daude: domeinua lortzea eta erabilgarri egitea. Lehenengo kasurako hautagaitza irmoa behar da, domeinua sustatzen duenaren egonkortasuna eta gaitasuna erakusten duten irizpide teknikoak, finantzarioak eta profesionalak lagundua.

Baina .eus bezalako zerbait ezin da ikusi soilik proiektu profesional gisa. Erabilgarria izan dadin eta Interneten “euskal barrutia”ren nortasuna eta ikusgarritasuna sustatu dezan, ardatza izango den talde baten inplikazioa behar da, babes zabala eta komunikazio ona.

### Interes politikoeak edo lurraldetasun kontuek trabatu al dezakete .eus domeinua lortzeko prozesua?

Gaur egun hiru gauzek oztopatu dezakete .eus domeinua: baldintzak betetzen ez dituen hautagaitza aurkeztea (eta hori ez da .eus-en kasua), ICANNek prozesuarekin ez jarraitzea erabakitzea (eta hori ICANNek ez du “bere borondatez” egingo) edo kanpo faktoreek atzeratzea edo geldiaraztea. Hirugarren horri dagokionez, kezkarria da AEBetako Gobernuaren esku-hartzea. Hainbat urte domeinuak liberalizatzeari buruz hitz egiten aritu ondoren, Gabonak baino lehen hainbat eskutitz bidali zituen esanez ez direla beharrezko azterketa ekonomikoak egin. Daukaten beldurra betikoa da: Domeinu berri asko esleitzeak enpresen edo instituzioen kostuak igoko lituzke, horiek hainbat domeinu babestu beharko bailituzkete. Barack Obamaren administrazio berriak honi buruz zer iritzi duen ikusi behar da, prozesua geldiarazteko eskatu

dutenak Bushen administrazioako goi karguak baitira.

### Zergatik lortu beharko litzateke .eus domeinua?

XXI. mendean Interneten zaude edo ez zara. XIX. mendean literaturarik, forma idatzirik, libururik izan ez zuten hizkuntzak gaur egun desagertuta daude edo desagertzear daude. XX. mendean eskoletara sartu ez ziren hizkuntza gutxik biziraun dute. Ondoren irratia eta telebista etorri ziren. Gaur egun Internet dago. Hizkuntzei eta kulturei prestigio soziala eman behar zaie. Interneteko euskal eremu horretan euskaldunek Txapeldunen Ligan jokatzeko dutela erakutsi behar da, ez 2. B mailan. Beraz, .eus-ek prestigio soziala ematen du, normalizatorako baliagarria da eta euskaldunen nortasuna indartzen du. Eta kanpotik begiratuta “barrutia” ikusgarri bihurtzen du, jendeari galderak eraginez: “Errentagarria al da merkatu hori?”, “nire software edo zerbitzua euskarara itzuliko al dut?”.

### Cat domeinuarekin ia lau urte daramatzazue. Zer balantze egiten duzu?

Oso positiboa izan da. Domeinuak funtzionatu du, 33.000 domeinu baino gehiago erregistratu dira, nahiz eta .cat domeinu bat lortzeko irizpideak oso murriztaileak eta prezioak oso altuak diren –hasierako urteetan beharrezkoa da horrela izatea–. Bestalde, “gatazkarik”, ez politikorik, ez teknikorik sortzen ez duen domeinua dela frogatu da. Baina .cat-en arrakastarik handiena, “kalitate oneko” domeinua izatean datza: Googlek .cat domeinu pean indexatuta dituen orrialdeak beste edozein domeinu ertain edo txiki baino gehiago dira. Azkenik, erregistratutako domeinuen %30 baino gehiago Interneten lehenago inolako presentziarik ez zuten pertsona edo erakundeek egina izan da. Hau da, erabiltzaile eta eduki berriak erakarri ditu Internetera. Horixe izan da bere arrakastarik handiena. ■

## ICANN

**1998 urtera arte Internet AEBetako Gobernuaren esku zegoen. Urte horretan ICANNen sorrerarekin AEBetako Merkataritza Ministerioarekin kontratu bat sinatu zen. Hala, Gobernuak kontrolatutako sarea sektore pribatuaren esku geratu zen. Praktikan baina, botere transferentzia hori “zaintza” bilakatu da.**